

2E/2015 EBAZPENA, otsailaren 26koa, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia onesten da.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-1272-2015-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Hezkuntza Departamentua  
Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzua  
Euskararen Sustapenerako Atala  
Tel.:848426779 Faxe:  
Helbidea: Donibane BHIren eraikina - Biurdana kalea, 1, 31011 Iruña  
Posta elektronikoa: [einveduc@cnavarra.es](mailto:einveduc@cnavarra.es)

#### ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia.

Araudia: Euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak arautzen dituen maiatzaren 23ko 25/2012 Foru Dekretua. Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen helburuak garatzeko eta eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna berresteko tresnan harturiko konpromisoak betetzeko, ebazpen honek euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko urteko jarduera programak egitea sustatzen du.

Deialdi honek toki entitateek 2015ean proposaturiko jarduera programei laguntzak banatzeko oinarriak ezartzen ditu. Era berean, aski gaitasun tekniko ez duten toki entitateei aholkularitza zuzena emateko aukera eskaintzen du.

Toki entitate bakoitzak bere aldetik edo modu bateratuan aurkezturiko programen balorazioan, aintzat hartuko dira ondoko esparruak:

- Bizitza kulturean eta sozialean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak
- Euskararen presentziarako jarduerak
- Euskarazko prestakuntza administrazio publikoetako langileendako eta udalbatzetako kideendako

2015eko deialdia arautuko da "Toki entitateek euskara erabiltzeko eta sustatzeko programak egiteko laguntzen 2015eko deialdiaren oinarri arautzaileak" eranskinetara arauen arabera, eta gehienez 147.000,00 eurokoa izanen da. Diru-kopuru hori 2015era luzatutako 2012ko gastuen aurrekontuko "Udalei eta kontzejuei euskararen gaineko laguntzak emateko programa" izeneko 440001 44200 4609 334100 kontu-sailaren kargura ordainduko da.

Badira Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuaren aldeko txostena, legelariaren txostena eta Kontu-hartzailetza Delegatuaren adostasuna.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1.d) eta 99. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 24ko 133/2011 Foru Dekretuaren 3. eta 11. artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

#### **EBATZI DUT:**

1. Euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko diru-laguntzen deialdia onestea.
2. Diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak onestea. Ebazpen honen eranskinetan jaso dira.

3. Deialdi honen konpromisoei aurre egiteko, jarraian adierazten diren aurrekontuko kredituak baimentzen dira; hala ere, aldaketak egiten ahalko dira, jasotako eskabideak kontuan hartuta:

<b>AURREKONTU-SAILA</b>	<b>RCSA kodea</b>	<b>EKITAL DIA</b>	<b>ZENBATEKO A</b>
440001-44200-4609-334100: Nafarroako udalei eta kontzejuei euskararen gaineko laguntzak emateko programa	4921	2015	147.000,00

4. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.
5. Ebazpen hau igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Hezkuntzakoan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, Euskararen Sustapenerako Atalera, Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalera, Programen Bulegora, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora, Araubide Administrazioaren Atalera eta Argibide eta Agiri Bulegora, behar diren ondorioak izan ditzan.
6. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute jurisdikzio-orden eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aurrean alde aurretiko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 26an

EUSKARABIDEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA  
MAXIMINO GÓMEZ SERRANO

## **OINARRI ARAUTZAILEAK ETA ERANSKINAK**

Kontuan izanik euskararen erabilerarako, presentziarako eta sustapenerako toki entitateek burutzen dituzten urteko jarduera programak bultzatu beharra, Euskarabideak 2015erako laguntzen deialdi hau argitaratu du. Hauek dira deialdia arautuko duten oinarriak:

### **I. ERANSKINA**

#### **ARAUAK**

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da euskararen erabilerarako, presentziarako eta sustapenerako toki entitateek burutzen dituzten urteko programak finantzatzera bideraturiko laguntzak emateko oinarriak ezartzea.

2. Jarduera mota eta aurrekontua.

- 2.1. Urteko jarduera programak bi jarduera mota bereiziko ditu:

a) A motako jarduerak: toki entitate eskatzailearen eskumeneko eremuan egindako jarduerak. Jarduera mota honetarako aurrekontuko diru hornidura 110.000 eurokoa da.

b) B motako jarduerak: hainbat toki entitatearen artean modu bateratuan egindako kanpainak. Jarduera mota honetarako aurrekontuko diru hornidura 37.000 eurokoa da.

2.2. Laguntza hauek 2015era luzatutako 2012ko Gastuen Aurrekontuko "Udalei eta kontzejuei euskararen gaineko laguntzak emateko programa" izeneko 440001 44200 4609 334100 kontu-sailaren kargura finantzatuko dira. Deialdia gehienez ere 147.000,00 euroz hornitua izanen da, baina aldaketak egon daitezke aurrekontuetako aldaketen ondorioz.

2.3. Deialdian sartzen diren jarduera motetako edozeinetan diru kopurua ez bada agortu, bestera gehituko da, deialdi honen 10. oinarrian ezarritako balorazio irizpideekin bat.

2.4. Laguntzak, gehienez ere, onarturiko aurrekontuaren %40 izanen dira.

### 3. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izaten ahal dira 2015eko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artean euskararen erabilerarako, presentziarako eta sustapenerako urteko programak onesten eta garatzen dituzten toki entitateak.

Euskara sustatzeko eta erabiltzeko jarduna eskuordetua duten eta mankomunitateetan elkartuta dauden toki entitateek deialdian banaka parte hartzeko aukera izanen dute berariazko programazio bat eginez gero, betiere programazio hori aipatutako mankomunitatearen urteko jarduera programan ezarritako helburuekin bat badator.

Aski gaitasun tekniko ez duten toki entitateek Euskarabidearen aholkularitza eta gainbegiratzea eskatzen ahalko dute.

### 4. Baldintzak.

4.1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrak.

4.2. Toki entitate eskatzailearen organo eskudunek onetsitako urteko jarduera programa aurkeztea. Dokumentazioa aurkeztuko da deialdiaren 8. oinarrian ezarritakoaren arabera. Horretarako, aipaturiko oinarrian adierazten diren eranskinak erabiliko dira.

4.3. Urteko jarduera programa Nafarroan indarrean den legeriarekin bat etorriko da eta ondorio guztietarako beteko du.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten proiektuek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte eta, ondorioz, ezin izanen dituzte agerian eduki horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.

4.4. Urteko jarduera programa koordinatuko duten langileen profil teknikoa.

Urteko jarduera programa 2. oinarrian aurreikusitakoaren arabera prestatzeko eta garatzeko lana teknikariek koordinatuko dute. Teknikari horiek gutxienez titulazio hau izan beharko dute:

- a) Diploma bat.
- b) EGA titulua edo baliokidea.

5. Urteko jarduera programaren edukiak.

Jarduera programek A edo B moten arabera bereizitako blokeetan jasoko dituzte jarduerak eta, gutxienez, ondoko atalak izanen dituzte:

5.1. Toki entitate eskatzailearen eragin eremuko egoera soziolinguistikoaren analisia.

- a) Datu soziolinguistiko eguneratuak.
- b) Programan sartuko diren jarduera esparruen diagnostikoa.
  - Erabileraren esparrua.
  - Presentziaren esparrua.
  - Sustapenaren esparrua.

5.2. Eragin nahi den jarduera esparru bakoitzerako helburu orokorrak eta berariazkoak:

- Helburu orokorra(k).
- Erabileraren esparruko helburua(k).
- Presentziaren esparruko helburua(k) (paisaia, kartelak...).
- Sustapenaren esparruko helburua(k) (sentsibilizazioa).

5.3. Jardueren edo kanpainen programazioa, argi eta garbi adieraziz A motako ala B motako jarduera den eta, gutxienez, ondoko atal hauek: helburua, programaturiko jarduera, zer herritan eta zer egunetan egingen den, pertsona

arduraduna (edo udaleko arloa), ebaluazioko adierazlea (zenbakiz neurgarria) eta aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua. Emanen den kalkulu-orri formatuko ereduaren arabera beteko da informazioa.

5.4. Ez da gastutzat hartuko beren eginkizunetan ari diren langileen soldatari dagokion gastua. Jarduera baten parte diren gastuak ezin izanen dira bestelako jarduera bat balira bezala aurkeztu eta erreferentziako jardueraren barruan sartu beharko dira.

5.5. Euskarari buruzko udal araudia: ordenantzak, planak eta beste arau batzuk. Aurkezten den euskarari buruzko urteko jarduera programa toki entitatearen plan estrategikoen barruan badago, toki entitateek plan hori eta aurtengo urteari dagokiona aurkeztu beharko dituzte.

Dagoeneko aurreko deialdietan aurkeztutako agiriak berriz aurkeztu beharrik ez dago, ez badira ezertan aldatu.

## 6. Euskararen erabilera.

6.1. Deialdi honen mende egiten diren jarduera guztiak euskaraz eginen dira, eta hizkuntzaren araudiari eta erabilera zuzenari dagokienez, Euskaltzaindiak ezarritakoari lotuko zaizkio.

6.2. Jarrera positiboak sustatzen dituzten jarduerak, euskaldun jendeari zuzentzen ez zaizkionak, gaztelaniaz izaten ahalko dira.

6.3. Eskola adinean dauden herritarrei zuzenduriko euskara erabiltzeko programetan bizikidetzaren sustatuko da egoera sozialari, linguistikoari edo eskolatzaren ereduari dagokionez diferentziak direnen artean.

Parte-hartze hori soilik mugatuko da entitate antolatzaileak egiaztatzen badu izangaiak ez duela aski hizkuntza maila bermatzeko antolaturiko jardueretan parte-hartzea eta, horrela, programaren helburuak betetzea.

## 7. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Eskabidearen aurkezpenak, eskatzen den dokumentazio guztiarekin batera, administrazio prozedura elektronikoari jarraitu behar dio eta telematikoki egin behar da, Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 19ko 40/2014 Foru Aginduaren arabera. Foru Agindu horren bidez ezarri zen Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko transferentziak eta diru-laguntzak tramitzeko eskaera, komunikazio eta beste dokumentu batzuk administrazio prozedura elektronikoaren bidez aurkezteko nahitaezotasuna, onuradunak Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateak direnean eta, zehazki, udal eremuan euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzei dagokienez.

Eskabidearen tramitazio elektronikora sarbidea Nafarroako Gobernuko orri elektronikoko Zerbitzuen Katalogoan horretarako gaitu den fitxatik egiten da:

"euskarendako laguntzak eta sustapena udal eremuan". Era berean, bertan zehaztuko dira tramite guztia egiteko jarraibideak. Nahitaezkoa da toki entitatearen izenean eskabidea aurkezten duen arduradun, langile edo kolaboratzailea digitalki identifikatzea, ziurtagiri digitalaren edo NAN elektronikoaren bidez.

Aurrekoa deusetan galarazi gabe eta, aipaturiko foru aginduak jasotzen duen moduan, toki entitateak tramitazio elektronikorako lehenagotik gaituak dauden hirugarrenen eta Hezkuntza Departamentuaren beraren laguntza izan dezake. Nolanahi ere, salbuespenez eta Euskarabideari alde aurretik jakinarazita, bertaratuta ere aurkeztu ahal izanen dira eskabidea eta eskatu diren dokumentuak, telematikoki aurkezteak erabiltzaileei zailtasunak eragiten dizkieten gorabeherak daudenean edo haiendako bereziki nekeza denean aurkezpen telematikoa, Departamentuak hala onetsi badu.

7.2. Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

7.3. Diru-laguntzaren eskabidea oso-osorik beteta ez badago edo nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa ez bazaio atxiki, toki entitateari edo eskatzaileari akats edo hutsunea zuzentzeko eskatuko zaio. Horretarako, gehienez ere 10 egun balioduneko epea emanen zaio zuzenketa eskaria jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hala egiten ez badu, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko da. Gorabehera hori alde aurreko ebazpen bidez adieraziko da.

## 8. Dokumentazioa.

8.1. Laguntza eskabidea (II. eranskina).

8.2. Toki entitateko idazkariak luzaturiko ziurtagiria, urteko jarduera programa onesten duen organo eskumendunaren erabakiari buruzkoa.

Era berean, mankomunitateetan elkartutako entitateek zeinek bere tokiko eremurako berariazko programazioa aurkezten badute, mankomunitateko idazkariak luzaturiko ziurtagiria aurkeztu beharko dute, programazio hori mankomunitatearen urteko jarduera programaren esparruan garatzen dela egiaztatzen duena.

8.3. Urteko jarduera programa kalkulu-orri baten formatuarekin deskargatuko den III. eranskineko ereduaren arabera izanen da.

8.4. Programa aurkezteko Euskarabidearen aholkularitza eskatzen duten toki entitateek, 3. oinarrian ezarritakoaren arabera, aholkularitza eskabidea egingen dute IV. eranskineko ereduaren arabera.

## 9. Prozeduraren instrukzioa.

9.1. Prozeduraren instrukzioa Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbituari dagokio eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera jokatuko da.

9.2. Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbituari jakinarazi beharko zaio programaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera, baldin eta proiektua aldatzea ekartzen badu. Diruz lagundutako programan edozein aldaketa egiteko Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuaren alde aurreko adostasuna beharko da, eta honek baimena ofizioz emanen du baldin eta aldaketak onetsitako programa funtsean aldatzen ez badu, ebaluazio batzordearen ustean.

10. Balorazio irizpideak.

10.1. A motako jardueren programazioa. Atal honen puntuazioan 100 puntu emanen dira gehienez ere, eta ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

10.1.1. Esparru soziokulturean euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko jardueren programazioa, 45 puntu gehienez:

- a) Esparru sozial eta kulturean euskara erabiltzeko jarduerak: literatura lehiaketak, zinema, ipuin kontalariak, antzerkia, hitzaldiak, bertsolaritza, euskara ikasteko prestakuntza-bekak, erakusketak, ikerketak argitaratzea eta kantu errezitalak; jarduera bakoitzeko puntu 1 emanen da eta, gehienez ere, 35 puntu osotara.
- b) Euskararen presentzia sustatzeko jarduerak: euskarazko udal aldizkari edo buletinak inprimatuta argitaratzea eta kale, bide edo eraikinen errotuluak euskaraz jartzea; jarduera bakoitzeko puntu 1 emanen da eta, gehienez ere, 10 puntu osotara.

10.1.2. Euskaraz emandako prestakuntza lantegi edo ikastaroen programazioa, 45 puntu gehienez.

4-20 orduko iraupena, 5 puntu.

21-60 orduko iraupena, 10 puntu.

61 ordu edo gehiago, 15 puntu.

10.1.3. Toki entitateak antolaturiko edo finantzaturiko prestakuntza programa administrazio publikoetako langileendako eta udalbatzetako kideendako: euskara ikasteko ikastaroak, 10 puntu gehienez.

Puntuazioa banatuko da prestakuntzako kreditu bakoitzeko 0,1 puntu emanda (10 irakastordu).

10.2. B motako jardueren programazioa. Atal honen puntuazioan 100 puntu emanen dira gehienez ere, eta ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Parte hartu duten toki entitateen kopurua, 40 puntu gehienez.

- 10 toki entitatera arte, 10 puntu.
- 11 eta 20 toki entitate bitartean, 20 puntu.
- 21 eta 25 toki entitate bitartean, 30 puntu.
- 26 toki entitateetarako aurrera, 40 puntu.

b) Programa bateratuaren aurrekontua: 50 puntu. Baloraziorako Batzorde Teknikoak onetsitako aurrekonturik handiena duen programa bateratuari 50 puntu emanen zaizkio, eta gainerakoei, puntuak proportzionaltasunez emanen zaizkie.

c) Programen kalitatea, 10 puntu gehienez.

Aurkezturiko programak aurreko urteko deialdiko datuekin alderatuko dira.

Programa bakoitzari 4 puntu emanen zaizkio eta puntu 1 gehituko da aurreko urteko programa berarekiko sartu den hobekuntza bakoitzeko.

- Programen diseinua: euskarri grafikoak, edukiak, programaturiko jarduerak: puntu 1 hobekuntza bakoitzeko, gehienez ere 3 puntu.

- Programen hedapena: argitaraturiko aleen, esku-orrien, aldizkarien kopurua handitzea; webguneak izandako bisita kopurua; entitate parte-hartzaile edo laguntzaileen kopurua handitzea: puntu 1 hobekuntza bakoitzeko, gehienez ere 3 puntu.

11. Laguntzaren balorazioa eta zenbatekoa.

11.1. Entitate eskatzaileen puntuazioa osotara balorazio irizpideen arabera kalkulatu da eta laguntzen zenbatekoa eskatzaileek lortutako puntuazioarekiko proportzionala izanen da.

11.2. Baloraziorako Batzorde Teknikoak beren ezaugarriengatik parekagarriak diren jarduerak multzokatu ahal izanen ditu.

12. Baloraziorako Batzorde Teknikoa.

12.1. Baloraziorako Batzorde Teknikoa sortuko da, deialdi honen baldintzak betetzen dituzten eskabideak aztertzeko eta baloratzeko.



12.2. Batzorde hori ondokoek osatuko dute:

a) Batzordeburua: Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuko zuzendaria.

b) Batzordekideak:

-Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuko teknikari bat.

-Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko ordezkari bat.

-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutako ordezkari bat.

c) Idazkaria: Euskararen Sustapenerako atalburua, hizpidea eta botoa izanen dituena.

12.3. Baloraziorako Batzorde Teknikoak eskarien gaineko iritzia emanen du eta balorazioa egingen du, eta graduazio irizpideak eta agortu ez den aurrekontua banatzeko irizpideak ezarriko ditu, deialdian ezarritako balorazio irizpideei jarraituz. Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuak hala eskatuta, aurkeztutako eskariak baloratzeko kanpoko adituen iritzia eskatzen ahal da.

13. Ebazpen proposamena.

Baloraziorako Batzorde Teknikoak eskaerak baloratuko ditu eta bere lanaren gaineko aktak Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzura bidaliko ditu. Zerbitzuak ebazpen proposamena aurkeztuko dio Euskarabideko zuzendari kudeatzaileari eta honek proposamena ebatziko du.

Proposamen horretan bi zerrenda agertuko dira: bata, laguntza ematea proposatu den eskatzaileena eta haiei emanen zaien diru-kopurua, zehaztuz nola baloratu den ezarritako irizpideen arabera, eta bestea, ezetsitako eskatzaileen zerrenda, horretarako zergatiak aipatuz.

14. Ebazpena.

Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik hasita hiru hilabeteko epean, ebazpen bat emanen du laguntzak esleitzeko. Epe hori bukatuta, espresuki ez bada ebazpenik eman, eskabideak ezetsitakotzat joko dira.

15. Argitaratzea.

Euskarabideak deialdi honen ebazpena bere webgune ofizialean (<http://www.euskarabidea.es>) eta Nafarroako Gobernuaren atarian argitaratuko

du, adieraziz toki entitate onuradunen zerrenda, zenbateko diru kopurua ordainduko zaion haietako bakoitzari eta entitate baztertuen zerrenda, halakorik balego, adieraziz zeintzuk diren baztertu izanaren arrazoiak.

#### 16. Diru-laguntzaren bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Hori hala izanik ere, diru-laguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

#### 17. Diru-laguntzaren justifikazioa eta epeak.

17.1. Diru-laguntza eman ondoren, diru-laguntzaren onuradunak beharturik daude jasotako funtsak eman ziren helbururako erabiltzeko, eskabidean aurkeztutako proiektuaren arabera. Euskarabideak diruz lagundutako proiektuak burutu direla egiazta dezake.

17.2. Gastuen datak 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 artekoak izanen dira.

17.3. Onartuak izan diren urteko jarduera programako jardueretatik justifikatu beharko da, gutxienez, atal bakoitzean emandako gehieneko puntuazioa lortzeko behar besteko jarduera kopurua.

17.4. Toki entitate onuradunek 2015eko urriaren 31 baino lehenago Euskarabidera bidali beharko dituzte diru-laguntza justifikatzeko agiriak. Dokumentazio hori aurkeztuko da diru-laguntza emateko ebazpenarekin eta aurkeztutako proiektuan adierazitakoarekin bat.

17.5. Oro har, gastua egin dela usteko da toki entitateko organo eskudunak obligazioaren onarpena kontabilizatu duenean.

#### 18. Diru-laguntzaren frogagiriak.

Toki entitate onuradunek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

18.1. Idazkariaren, kontu-hartzailearen edo, besterik ezean, entitateko buruaren ziurtagiria, adieraziz diru-laguntzaren xedea bete dela, barne hartuz:

- a) Entitate onuradunak osotara izandako gastuak, jarduera bakoitzeko banakatuak, ondokoekin: hartzekoduna, faktura edo dokumentu baliokidearen zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen data eta oraindik egin gabe dauden jarduerendako organo eskudunak ordainketaren obligazioa noiz onartu duen (V. eranskina).

b) Diruz lagundutako jarduera finantzatuko luketen bestelako diru-sarreraren edo diru-laguntzen zerrenda xehakaturik, hartan adieraziz haien zenbatekoa eta jatorria (VI. eranskina).

c) Adieraziko da garatu diren programazioak teknikari arduradunaren profilaren gainean 4.4. oinarrian jasotako zehaztapenen arabera koordinatu direla.

18.2. Laguntza jaso zuten ekintzen memoria deskribatzaile bat. Bertan jasoko dira jarduera esparruen helburuak eta lan ildoak, egindako jardueren ebaluazio zehatua, baliabide eta material bakoitzaren lagin bat paperean edo euskarri digitalean eta garatu diren programazioak 4.4. oinarrian (VII. eranskina) jasotako zehaztapenen arabera koordinatu izanaren konstantzia. Era berean, liburuak edo euskarri digitalak argitaratzen badira, bi ale. Beharrezkotzat joz gero, justifikazio memoria horren edukia bildu eta zabalduko duen deskribapen agiria gehi daiteke.

19. Diru-laguntzaren ordainketa.

19.1. Emandako laguntzen zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da, 2015eko abenduaren 31 baino lehen, behin organo kudeatzaileak 18. oinarrian eskatzen den dokumentazioa berrikusita.

19.2. Ebazpenean finkatutako kopurua laguntza emateaz arduratzen den organoak murriz dezake, proiektuaren justifikazioa ez badator bat hasieran eskaeran aitortutakoarekin.

19.3. 17.4. oinarrian ezarritako epea iragaten bada justifikazioak osorik edo partzialki aurkeztu gabe, behar diren toki entitateei emandako diru-laguntzak murriztu edota itzultzeko eskatuko zaie.

19.4. Deialdi honen indarraldian proiektu bera egiteko beste diru-laguntza bat ematen bazaio, toki entitateak horren berri eman beharko dio deialdia kudeatu duen organoari. Horri dagokionez, diru-laguntza murriztuko da haren zenbatekoak, bakarka edo beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuk emandakoekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 gainditzen badu.

19.5. Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, Balorazio Batzordeak soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko du, ordainketa-ebazpen baten bitartez.

19.6. Toki entitateek 17.4 oinarrian ezarritako azken epea baino lehen aurkezten ahalko dituzte justifikazio agiriak, egindako jarduera kopurua emandako laguntzaren zenbatekoa justifikatzeko aski bada. Organo

kudeatzaileak agiri horiek berrikusitakoan, dagokion laguntzaren ordainketa tramitatuko da.

## 20. Itzultzea.

Onuradunak behar bezala ez badu justifikatzen jarduera egin izana, ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalak. Halakoetan, ez-betetzearekiko proportzionalak izanen diren itzulketak edo ez-ordaintze partzialak egingen dira. Ez-betetze larritzat joko dira funtsezko gaiei dagozkienak. Halakoetan, arau orokorra izanen da itzulketa edo ez-ordaintze osoa, galarazi gabe, bi kasuetan ere, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetarako berandutza korrituak eskatzea. Balorazio Batzordeak egoki irizten dituen mailaketa irizpideak ezarri ahal izanen ditu.

## 21. Beste betebeharrak.

21.1. Entitate onuradunak beharturik daude Nafarroako Gobernuak eskaturiko informazio guztia ematera, laguntzen helburua fiskalizatu eta kontrolatzeko dituen eginkizunak betetzen ari denean.

21.2. Programa gauzatzeko hornitzaileen kontratazioa 12.000 eurokoa baino handiagoa bada, toki entitateak egiaztatu beharko du kontratazioa eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera egin dela, ez bada gastuaren berezitasuna ekarri duela merkatuan eskaintzen duten zerbitzu hori entitate gutxi izateak edo gastua egin izana diru-laguntza eskatu aurretik.

## 22. Emandako laguntzen publizitatea.

Dealdi honen bidez diruz lagundutako proiektu orok aipatu beharko du Nafarroako Gobernuak babestu duela, proiektuaren ondorioz egiten diren euskarri guztietan. Hartara, Nafarroako Gobernuaren logotipo normalizatua azaldu beharko da. Nolanahi ere, diru-laguntzak esleitzen dituen ebazpenaren aurretik gauzatu diren proiektuak betebeharrak honetatik salbuetsita geldituko dira.

Euskarabideak, entitate titularrari adierazi eta harekin adostu ondoren, euskararen sustapenerako jarduera interesgarrienak hedatu ahal izanen ditu.

## 23. Gardentasuna.

23.1. Entitate onuradunek Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehiagarrian ezarritako gardentasuna bete beharko dute (betebeharrak hori irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan arautu zen) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura diru-laguntzak eskuratzen dituztenean eta ondoko bi egoerak ematen direnean:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa urteko 20.000 eurotik gorakoa izatea.

b) Emandako zenbatekoak entitate onuradunaren negozio kopuruaren edo urteko aurrekontuaren ehuneko 20a gainditzea.

Aurreko atalean ezarri diren kopuru mugak gainditzen diren edo ez aintzat hartzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo bere erakunde publikoek urte naturalean emandako diru-laguntzen kopuru guztia gehituko da. Diru-laguntza hainbat urtekotan egiten den kasuetan, ondorio hauetarako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emandako kopurua kontatuko da, eta ez batura osotara. Negozio kopurua edo erreferentziazko urteko aurrekontua, ondoko magnitudeen artean zenbateko txikiena duena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio kopurua edo gauzaturiko aurrekontua.

b) Hala badagokio, diru-laguntza ematen duen entitatearen organo eskumendunak onetsitako negozio kopurua edo aurrekontua.

Bi gorabehera hauek batera dituzten entitate onuradunek, modu telematikoan aurkeztu beharko dute aipaturiko Foru Dekretuan eskatzen den informazioa Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Euskarabideari zuzenduta, jakinarazpena jaso edo, kasua bada, diru-laguntza eman izanaren ebazpena argitaratzeko egunetik hasita hilabeteko epean.

23.2. Aurreko atalean deskribatzen diren gorabeherak ematen ez direlako, entitatea ez bada gardentasun betebeharraren mendeko, aitorpena aurkeztu beharko du, hori adieraziz.

23.3. Entitate onuradunek emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urte betean zehar. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganda, argitaratzearen ardura duen unitateak ofizioz erretiratuko du eta, ez bada hala egiten, entitate onuradunak eska dezake erretira dadila eta, gehienez ere, eskabidea jasotzen den unetik hasita hilabeteko epean egingen da.

23.4. Entitateak, segidako diru-laguntzen onuraduna izan bada jardunaldi berean, ez du informazioa berretsi beharko diru-laguntza bakoitzaren kasuan, salbu eta hasieran eman ziren datuak aldatzen badira.

23.5. Onuradunak informazioa emateko duen betebeharra ez betetzeagatik izan daitezkeen balizko ondorio zigortzaileak galarazi gabe, ez betetze horrek emandako diru-laguntza ordaintzea galaraziko du, aurrerakinak barne eta, kasua bada, emandako kopuruak itzultzea ekarriko du, Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoarekin bat.

24. Arau-hauste eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko IV. titulua hartuko da aintzat.

Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko V. tituluari ezarritakoa izanen da.

25. Interesdunei argibideak ematea.

Administrazio prozeduraren gaineko informazio osagarria Euskarabidean eskura daiteke, ondoko bideak erabiliz:

- a) Euskarabidearen webgunean ([www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)).
- b) Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuko 848426062 telefonora deituz.
- c) Posta elektronikoko helbide honetara idatziz: [einveduc@navarra.es](mailto:einveduc@navarra.es)
- d) Euskarabideko egoitzan.

26. Aplikatu daitezkeen legeria eta errekurtsioak.

26.1. Oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emaniko diru-laguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen duen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoak aginduko du.

26.2. Toki entitateek deialdi honen eta haren oinarriak betearazteko emandako egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahalko dute, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretora zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsioaren xede den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

**II. ERANSKINA**

Eskatzailearen izen-deiturak edo izen soziala: ....., NANA/IFZ:  
.....

Kalea: ....., zenbakia: .....

PK: ....., Tel./Faxa: ....., Helbide elektronikoa: ....., Herria:  
.....

Entitatea:.....

**Lehena:** Eskabidea aurkezten du toki entitateek 2015ean euskara sustatzeko egindako programak laguntzeko deialdirako, .....  
Ebazpenaren bidez onetsitako oinarriekin bat.

**Bigarrena:** Adierazten du ez ordezkutzen duen entitatea ez beronen administrari edo ordezkariak ez daudela sartuak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izaera eskuratzeko adierazten diren debekuetako bakarrean ere.

**Hirugarrena:** Diru-laguntza eskatzen den proiektuari dagokionez, adierazten du:

- Ez duela eskuratu ez eskatu inolako diru-laguntzarik administrazio honen, beste administrazio publikoen, ente publiko edo pribatuen edo partikularren aldetik, ez Espainian ez nazioartean.
- Espainian edo nazioartean eskuratu/eskatu dituela administrazio honen, beste administrazio publikoen, ente publiko edo pribatuen edo partikularren aldetik, ondoko diru-laguntzak:

Zein entitateri eskatu zaion laguntza	Eskaturiko kopurua	Diru-laguntzaren egoera

Eskabide honekin emandako datuen tratamendua Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta gainerako legeria aplikagarrian ezarritakoari lotuko zaio. Datuak zuzendu, ikusi eta ezabatzeko eskubideez baliatzea, aipaturiko legeriarekin bat, Euskarabidean eginen da.

Entitate eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa:

Toki entitate eskatzailearen idazkaritzaren ziurtagiria (8.2. oinarria).

Mankomunitateko idazkaritzaren ziurtagiria, euskararen sustapena eskuordetua duten toki entitateen kasuan (8.2. oinarria).

Urteko jarduera programa (III. eranskina).

Aholkularitza eskaera (IV. eranskina).

.....(e)n, 2015eko .....aren ....(e)an

Sinadura

NAFARROAKO GOBERNUA. EUSKARABIDEA

### III. ERANSKINA

#### URTEKO JARDUERA PROGRAMA

##### 1.- Egoera soziolinguistikoaren azterketa:

<b>1.1. Datu soziolinguistiko eguneratuak</b>

##### 1.2.- Jarduera esparruen diagnostikoa:

<b>1.2.1. Erabileraren esparrua</b>

<b>1.2.2. Presentziaren esparrua</b>



<b>1.2.3. Sustapenaren esparrua</b>

**2.- Helburu nagusiak eta esparru bakoitzeko berariazko helburuak:**

<b>2.1. Helburu orokorrak</b>

<b>2.2. Erabileraren esparruko helburuak</b>
--

<b>2.3. Presentziaren esparruko helburuak</b>
---

<b>2.4. Sustapenaren esparruko helburuak</b>
--

3. Jardueren programazioa:

3.1. A motako jarduerak.

3.1.1. Esparru soziokulturean euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko jardueren programazioa

a) Esparru sozial eta kulturean euskara erabiltzeko jarduerak:

Zk.	Helburua	Modalitatea	Jarduera	Herria	Noiz egingen den	Arduraduna	Ebaluazio adierazlea	Aurrekontu osoa	Aurreikusitako diru-sarrerak
		Nahitaezko hautaketa							
		Nahitaezko hautaketa							
		Nahitaezko hautaketa							

b) Presentziako jarduerak:

Zk.	Helburua	Modalitatea	Jarduera	Herria	Noiz egingen den	Arduraduna	Ebaluazio adierazlea	Aurrekontu osoa	Aurreikusitako diru-sarrerak
		Nahitaezko hautaketa							
		Nahitaezko hautaketa							
		Nahitaezko hautaketa							

3.1.2. Euskaraz emandako prestakuntza lantegi edo ikastaroak:

Zk.	Helburua	Modalitatea	Jarduera	Herria	Noiz egingen den	Arduraduna	Ordu kopurua	Ebaluazio adierazlea	Aurrekontu osoa	Aurreikusitako diru-sarrerak
		Nahitaezko hautaketa								
		Nahitaezko hautaketa								
		Nahitaezko hautaketa								

3.1.3. Prestakuntza programak: euskara ikasteko ikastaroak.

Zk.	Ikaslea	Maila	Herria	Noiz eginen den	Aprobetxamendua: emandako orduak/jasotako orduak	Aurrekontu osoa	Aurreikusitako diru-sarrerak
		Nahitaezko hautaketa					

3.2. B motako jarduerak:

Zk.	Helburua	Modalitatea	Jarduera	Herria	Noiz eginen den	Entitate arduraduna	Entitate parte- hartzaien zerrenda	Programen kalitatea		Ebaluazio adierazlea	Aurrekontu osoa	Aurreikusita ko diru- sarrerak
								Diseinua	Hedape- na			
		Nahitaezko hautaketa										
		Nahitaezko hautaketa										
		Nahitaezko hautaketa										

**IV. ERANSKINA**

**AHOLKULARITZA ESKABIDEA:**

Entitate eskatzaileak Euskarabidearen aholkularitza eskatzen du bere udalerrian euskararen normalizaziorako eta hizkuntza plangintzarako programa prestatzeko, ondoko esparruetan:

Diagnostiko linguistikoa prestatzea

Euskara erabiltzeko jarduerak planifikatzea

- Euskararen presentziarako jarduerak (argitalpenak, errotulazioa, etab.) planifikatzea
- Lantegiak eta prestakuntza jarduerak planifikatzea
- Aurrekontua

**V. ERANSKINA**

Eskatzailearen izen-deiturak edo izen soziala:

IFZ/NANA:.....

ENTITATEA:

.....  
.....

**2015EKO GASTUEN JUSTIFIKAGIRIAK**

Zk.	Jaulkitze eguna	Azalpena	Kopurua	Ordaintze eguna
1				
2				
3				
4				
5				

OSOTARA

Sinadura baimendua.

(Tokia eta data)

**VI. ERANSKINA**

Eskatzailearen izen-deiturak edo izen soziala:

IFZ/NANA:.....

ENTITATEA:

.....  
.....

**2015EKO DIRU-SARREREN JUSTIFIKAGIRIAK**

Zk.	Beste erakunde batzuk	Bestelako diru-sarrerak	Kopurua	Diru-sarreraren eguna
1				
2				
3				

OSOTARA

Sinadura baimendua.

(Tokia eta data)

**VII. ERANSKINA**

Eskatzailearen izen-deiturak edo izen soziala:

IFZ/NANA:.....

ENTITATEA:

.....  
.....

**2015EKO MEMORIA**

Eskatzailearen izen-deiturak edo izen soziala:

IFZ/NANA:.....

ENTITATEA:

.....  
.....

**1.- Helburuak eta lan ildoak, jarduera esparruen arabera.**

**2.- Urteko jarduera programaren arabera egindako jardueren ebaluazio**

xehatua.

A MOTAKO JARDUERAK

Jarduerak	Ebaluatu adierazlea	beharreko	sortutako materiala: bai/ez
1.			

B MOTAKO JARDUERAK

Jarduerak	Ebaluatu adierazlea	beharreko	sortutako materiala: bai/ez
1.			

3.- Adierazten da garatu diren programazioak teknikari arduradunaren profilaren gainean 4.4. oinarrian jasotako zehaztapenen arabera koordinatu direla.

Sinadura baimendua.

(Tokia eta data)